



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO IRAILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko irailaren 29an arratsaldeko 19:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lacastaren lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Julen Beunza eta Santos Etxegia.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai

Bertaratu dira baita ere Asensio Indacoechea Berueteko kontzejuko alkatea eta Jose M^a Arangoa Arrarasko kontzejuko ordezkaria.

19:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko akten onespena.

Abuztuaren 28ko ohiko batzarreko akta eta irailaren 8ko ezohiko batzarreko aktan bidali dira deialdiarekin batera, bildutakoek hauek irakurri ondoren aho batez bi aktan onartzeko erabakia hartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak

- 2022/64 alkate ebazpena onartuz Udal honetako zinegotzia den Santos Etxegia Oronozi eskuordetzea 2022/1 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan; eskuordetzeak ebazpena sinatzen denetik izanen du indarra.

-2022/65 alkate ebazpena onartuz Juan Ignacio Zubillaga Auzari obra baimena ematea Itsasoko 4. Poligonoko 28. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, obraren aurrekontua 37.922,24 euroko izanik.

-2022/66 alkate ebazpena onartuz Suana Rodriguezek Aizarotzko Olaondo 3 behea kalean dagoen biltegi batean lurra zolatu eta baldosak jartzeko aurkeztutako aitorten ardurtsua, obraren aurrekontua 14.481,65 euro.

-2022/67 alkate ebazpena baimena emanaz Argimalutak Soc. Microcop. ari Apeztegi berriko lehen solairuko areto nagusia erabiltzeko abuztuaren 1, 8, 15, 22 eta irailak 5, 12, 19 eta 26, 10.00etatik 11.30tara yoga ikastaroa egiteko.

-2022/68 alkate ebazpena Yura Aracely Amaguaña Quinchuquiki Onartzea 2022 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4376CJN matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 64,63 eurokoa izanen delarik.

-2022/69 alkate ebazpena Baimena emanaz Argimalutak Soc. Microcop. ari Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, abuztuaren 17tik aurrera eta irailaren 26 arte (eskaeran zehaztutako egunetan) , 10.00etatik 11.30tara adinduekin yoga ikastaroa egiteko.

-2022/70 alkate ebazpena Basaburuan jardura ekonomikoko eremua sortzeko I. fasea urbanizatzeko obra behin-behinean Lakita SA enpresari esleitzea, 342.185,24 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo) , obraren berme-epea 72 hilabetekoa izanik, agirian ezarritako hasierako 3 urteekiko, eta Enplegu Zentro Bereziekiko azpikontratazio-konpromisoa esleipen-aurrekontuaren % 15ekoa izanik..

-2022/71 alkate ebazpena onartuz Aintzane Andueza Zabalok egindako eskaera eta hortaz onartu 2009/11 Foru Dekretuaren 14 eta 15. Artikuluek arautzen dutenaren arabera, irailaren 26 eta 27, soldatik gabeko egunak izatea.

- 2022/72 alkate ebazpena Baimena ematea Pili Miqueo Miqueori Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko irailaren 14n 18etatik 21etara, Jam sesio bat egiteko

- 2022/73 alkate ebazpena onartuz Limpiezas Daneko enpresak aurkeztutako aurrekontua Oihanzabal eskolako leihoak garbitzeko, hau 420 eurokoa izanik (BEZ kanpo).

-2022/74 alkate ebazpena onartzea Arantza Prieto Lopezi esleitzea Aizarotzko herrikoetxeko kudeaketa kontratua, baldintza pleguan zehazten den moduan bost urteko eperako

-2022/75 alkate ebazpena Baimena emanaz Irati Miren Munduate Apariciori, 2022-2023 ikasturteko ostegunetan 19:00etatik 20:30etara Pilates-tono ikastaroa emateko. Apeztegi berriko ganbaran.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- Taxi baimenaren arautegia. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du uztailaren 28ko ohiko batzarrean onartu zela hasiera batez taxi baimena arautzen duen arautegia, 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onespeneko erabakia eta hilabeteko epean egon da jende arrear alegazioak jartzeko aukera irekiaz. Erabakia abuztuaren 16ko NAO n argitaratu zen eta jende arreko epea hortaz irailaren 17an bukatu zen. Hori kontutan hartuta bildutakoek arautegiaren testua erreparasatzen dute eta aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betikoz onartzea taxi baimenaren kudeaketa arautzen duen arautegia eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

4.- Ttikiena haur eskolako 2022-2023 egutegiaren aldaketa.

Alkateak adierazten du jada ikasturte berriko egutegia onartu zela batzarrean, baina orain eskolak aldaketa bat egiteko proposamen luzatzen diola Basaburuko Udaleko batzarrari onartzekotan Hezkuntza Departamentuari jakinarazteko. Aldaketa proposamena abenduaren 5a jai egun bezala kontutan ez hartzea onartu zen bezala eta aldiz jai egun hori aldatzea abenduaren 9ra. Arrazoia Oihanzabal eskolak jai eguna duela abenduaren 9an eta ez 5ean.

Bildutakoek ez dute oztoporik ikusten eta aho batez onartzen dute Ttikiena haur eskolak egindako proposamena eta hortaz 2022-2023 ikasturteko egutegia aldatzeko erabakia hartzen dute eta 2022ko abenduaren 9an jai egun bezala finkatu.

Gai zerrendatik kanpo aztertzeko dagoen gaia alkateak proposatutakoa, aho batez bildutakoek onartzen dute bildutakoek gai zerrendan sartzea 1985/2568 Errege Dekretuaren 82. Artikuluaren arabera.

Aizarozko herria kontzeju sortzeko eskaera.

Alkateak azaltzen ditu gai honekin lotutako aurrekariak:

- 2022ko maiatzaren 13ko ezohiko batzarrean Basaburuko Udalak onartu zuen 2019an hasitako prozeduran atzera egitea, beti ere kontzeju eratzeko prozedura berriro eskatzeko aukera irekia utziz.
- Ondoren maiatzaren 30ean udalaren erabakia izan zen berriro prozedura irekitzea eta txosten ekonomikoak eta beste egiteko enpresa bat hautatzea. Hautaketa honetan esleipenduna Iniciativas Innovadoras enpresa izan zen.

Behin eskatutako txosten ekonomikoa jasota eta alkateak irakurri ondoren, Basaburuko Udaleko ordezkarien gehiengo osoak, 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 43. Artikulua jarraituz ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

-Onartzea Iniciativas Innovadoras aholkularitzak egindako txosten ekonomikoa eta Basaburuko udaleko idazkariak egindako txosten juridikoa.

-Onartzea 1990/6 Foru Legearen 43. Artikuluan zehaztutakoa jarraituz, udal ekimen bezala, Aizarozko herria kontzeju sortzeko eskaera Nafar Gobernuako Toki Administrazioako Zuzendaritzara bideratzea.

5.- Mozioak.

Ez dago.

6- Batzordeen informazioa.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Urriaren 4rako bilera deia egin da kontzejuekin elkartzeko.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Aktibazio ekonomikoaren planaren inguruan bilerak jarraitzen dute eta hurrengo urriaren 25ean egingo dena, bilera irekia izango da zonaldeko bizilagun guztiei irekia izango da. Bilera deialdia hau zabaldu da udaleko web orrian eta ere kontzejuetako alkateei helarazi zaie.

7.- Informazio orokorra.

Ez dago.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:20 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.